

# Euzkerak -R- kontsonanteari buruz darabilen yarduera

Por GAIZKA BARANDIARAN

Indeuparren izkuntzetan -R-ren yarduera «ixurbera» (líquidas, flúidas) deritzayen kontsonanteen sailkoan ageri da. Auek dire «ixurbera» sailko kontsonanteak -l, m, n, r-.

Heberkeraz eta Akadieraz -R-ren auzia bestelangoa da. Kontsonante «estarrlotsa» edo «zintzurrotsa» da Sem izkuntzetan.

Euzkeraz -R-ren yarduera nolakoa dan, ixurbera ala estarrlotsa dan, orixe da oraingo auzia.

Eskuarteko auziari ekiteko, indeupar izkuntzetan ageri dan oñarrira joko degu. Demagun indeupar izkuntzen Oñarri Izkuntza bat. Oñarri Izkuntza ortan izki sail au -l, m, n, r- ikertuko degu, kontsonante oyek lege batez ari dire-eta. Izki oyek kontsonanteak ez ezik, bokalezko aokaldiak (Sonanteak) ere osatzen dituzte. Edo onela esan dezagun: kontsonante oyek, -R- barne delarik, «ixurberak» (flúidas, líquidas) lañean ar ditezke. Baña kontsonante bokaldunak edo «aokaldidunak» (Silbebildend (doitx.)) deritzaye. Oñarri izkuntza ori, ba, aurrean degularik, onelako yarduera dute aokaldidun kontsonante oyek beste izkuntz auetan:

Indogermanieraz -l, m, n, r- erdibokal erdikontsonante sortzen dire.

Germanieraz -U- bokala sortzen da erdibokal oyetan onela: -ul, um; un, ur-.

Lateraz, berriz, --or, ol- ta --em, en- sortzen dire.

Gerkeraren aldaketa, berriz, beste onela gertatzen da: -R- «ra, ar», -L- «la, al»; -M, N-, berriz, «a,a» da.

Adibidez, gerkerari gagozkiolarik, \*kRtós- biko ontan aldatzen da: -kARteros, kRATERós-; \*kRdía- onelako auetan: -kARDía, kRADía-; \*patRsi- ontan -paTRási; \*dRtós- onela -dARTós-; \*dédRmai- onela -dédARmai-; \*-pimpRmen- onela -pimpRAMen-; \*(y)êpR êpar.

Oñarri izkuntzako *-L-*, berebat, onela gertatzen eta aldatzen da gerkeraz \**-estLka*, *éstALka*--; \**-pimpLmen*, *pimpLAMen*--; \**-kLpéis*, *kLApéis*--; \**-tetLmen*, *tétLAMen*; \**pLtòs*, *pALtòs*-.

Oñarri izkuntzan ageri dan *-M-* onela aldatzen da: *-podM*, *póDA*--; Lateraz *-pedEM*--.

Oñarri izkuntzako *-N-* onela aldatzen da: gerkeraz \**ndikos* -Adikos--; lateraz *-INjustus*--; doitxeraz *-UNrecht*--; \**-ekNton*, *ékAton* (gerk.)--; *-ceNtum* (lat.)--; *-hUNDert* (doitx.)--; *-hUNDred* (ingel.)--. Berebat erakusten dute berdiñak diren itz auek *-’A-* (bere ats latzakin) eta \**-SM*--. Onoko itz au bereala ageri da beste auetan: *-’ama* (sama)--gerkeraz, *-simul*-- lateraz, ta doitxeraz *-SAMmeln*, *SAMmlung*--. Gogora antxiñako *-SAMA Veda*-- idazti doneak, *-Foida* (*Vid-eo*)-- «jakinuriaren bilduma (Sama)». Gerkel itz zenbakia *-mìa*-- zeretik eratorria \**-smìa*--. Homer'en irakurtzen dan bezela, *-àmme*-- onela eratorria da *-ȳs-sme*, *As-sme*, *As-me*, *Amme*--.

Euzkerak, ikus ditekenez, *-l*, *m*, *n*- kontsonanteeri buruz ez du olako legerik. Bañan *-R-rik* itzaren asieran ez du ontzat ematen. Euzkeraren legez ez da *-rusoa*, *republika*, *rusoz*...-. Itzaren buruan *-R-* ori beste ontan aldatzen da *-AR*, *ER*--; ta orrezkeraz, *-errusiarra*, *errusieraz*, *errepublika*...-. Orixe da Euzkeraren legea. Euzkerak bere fonetika gaztelareri ezarri diolako, ausaz, gaztelarak ere *-Riesgo*-esan arren, *-Arriesgar*- sortzen du. Berebat gertatzen da adibide auetan: *remanga*, *arremangar*; *recio*, *arreciar*; *arrecife* (*recife*); *redondo*, *arredondear*; *rellano*, *arrelianar*; *raso*, *arrasar*;... biurtzen ditu.

Beste izkuntz auek, berriz, *-Risiko* (doitx.)--; *-Riskieren*, *Riskant* (doitx.)--. Prantzerak *-Risque*-. Ingelerak *-round*, *redoubling*, *to redouble*, *risk*...-.

Bañan Euzkeraz ez da gertatzen lege ori itzaren erdian indeuropar izkuntzetan bezela, ez bai da aokaldidun (*Silbepbildend*): *-ar*, *ra*; *ur*, *or*--. Gaur ere germanierazko izkuntzetan, orain izkelkiak deriztatenetan, onela entzuten da *-(Mir)*, *MiAER*, *MiER*; (*Dir*) *DiAER*, *DiER*; (*Nur*) *NuER*...-. Doitxerazko abizena *-Mir*- onela oguzten da *-MayER*- (*MayAR*). Doitxerazko izkelkian *-Hirt*- onela da *-HiAt*-. Tirol'go bi dantza auetan *-HiAta Bua*; *HiAta Madl*-- «Artzaiñaren semea, Artzaiñaren alaba», izenburua aipatzen dan bezela.

Gerkeraren antzo, baita doitxerazko izkelkietan ere *-L-* aokaldidun kontsonantea da, edo Sonantea (*Silbepbildend*). *-Madl*, *Gabl*...- itzak onela entzuten dire (*Mad(e)l*, *Gab(e)l*...-.

Orrezkeraz, esan dezagun, euzkerazko *-R-* orrek ez dirudi «ixurbera» danik. Itzaren asieran soilki gertatzen da «aokaldidun» *-ar*, *er*--; baña bestetan ez da ori gertatzen. Are gutxiago dirudi indeuroparren *-l*, *m*, *n*-- kontsonante sail batekoa danik.

Oraindano ikusi degunez, ba, indeuoparren izkuntzetan -R- izkia «ixurbera» da, ta «aokaldidun» edo delako «Silbebildend». Orain, berriz, indeuoparren izkuntzek nolako yarduera duten «estarrriotseri» buruz aztertuko degu.

Bitarikoa da indeuoparren izkuntzetan kontsonante «estarrriotsek» (Kehllaute) --a, e, i, o, u-- bokalekin duten gorabeera. Bokal oyetan bi talde bereizten dire ikerketan erosoki yarduteko. Batzueri --e, i-- bokal «argiak», eta beste -a, o, u-- bokaleri «illunak» deritzate.

Orrezkeroz, gogora dezagun itz auetxen arremana: gerkerazko -iis- lateraz -quis- biurtzen da \*QwIs < TIs \*QwI < TI. Gerkel erantitza dan -te-, berebat, lateraz -que- biurtzen da. Gertakun oyetan «argiak» dire bokalak. Bietan -Qw, Gw-- estarrioticsa edota delako «ezpan-agosapaikoa», ta -t- «mii-ortzetakoa» elkar aldatzen dire.

Berebateko legea ageri da aditz auetan ere --\*fulaK-yo < \*fulaT-yo < fuláTTo; \*fuG-yo < \*fuD-yo < fúDzo; \*stiG-yo < \*stiD-yo < stiDzo; \*G(u)-yoom < \*D-yóom < Dzóon --Oyetan denetan estarrioticsa -i- bokal argiarekin elkartzetakoan ortzetako kontsonantean aldatzen da.

Baña beste bokal «illunak» -a, o, u- estarriotsekin aokaldidun gertatzen direnean, beste lege bati jarraitzen diote.

Adibidez, ar dezagun laterazko aditza -linQuo, linQuis, linQuere, liQUi, liCtum-. Estarrioticsa dan --QU- kontsonantea, gerkeraz -leiPO- biurtzen da. Egiz, gerkerazko -leiPO-k bokal argiekin elkartzetakoan, onela jarraitu bear zukean \*leiTEis, \*leiTEi, leiPOmen, \*leiTEte, leiPOusi-. Baña -leiPO- adizkiak eraginda, --leiPEi, leiPEte...- bidetik doa. Beraz, legearen aurka. Gerkel aditza dan -héPOmai- lateraz -seQUor- berdiña da. Gerkel itz onek -lòBOs, lèBERis-- bere laterazko itza -leGUmén- jatorri kidekoa du. Indeuoparren izkuntzetan estarrriotsek eta ezpanotsek dute elkarren arteko kidesasuna. Adibidez, -lúKwos- (gerk.) ta -luPUs- (lat.). Oñarri izkuntzako -Gwl-yo-- gerkerazko --\*bL-yo, bAL-yo, bALlo-- biurtu da. Bokal illunakin elkartzean, -bAL- edo -bOLis-- bolé, bólos, beboléato ematen du. Alere, --BElóné, BÉlemnon-- itzetan legearen aurka egiten du daudenez daudela. Baña -BÉlos- itzak bere kidekoa ere ba du -TÉlum- (lat.), jatorrizko legeari erantzuteko.

Oñarri izkuntzako --WoKw-*ŋ*-- (lateras -vocEM-) -WoKu-*ŋ* eta --VoKA-- gerkeraz -(F)opA-- esaniko legearen arabera sortzen da.

Antxiñateko gerkeraren izkelkietan ez da ageri betibateko legea batzutan. Onela, oñarri izkuntzako \*QwEror (-r- ta -l- ren aldetaz batera) < PElor eta < TELor sortzen dire. --\*QwEles < TElos «artalde, erlauntza», baña baita < --PElo- ere egiten du. --\*QwEras < TERas «arrigarrizko zantzua», bañan ez da sortzen -PERas.

Ikue dezagun --PElomai, PElo-- «jardun, igitu». Lenbizi ba du bere itz birkia ere --TElomai-, bokal argiaren legez sortzen dana. Onela ere, bigarrenaz, aldatzen du bere asierako --PElomai: periTEllómenos, periPlOmenos--. Ortaz gañera, bere berezko legera dator «idurizko ta itxurazko» --PElomai- bokal illunakin elkartzean, onela -POlos- «ardatza», -POLéo, POleúo- ta -aiPOlos, epiPOLés, emPOLé—. Gerkerazko -amfiPOlos- laterazko --anQwUlus- «otsein, mirabea». Baita --bouPOlos- ere bere itz birkia dan -bouKOlos- indogermanieraren legea betetzen dute. Ta -\*QwElo- berebat, artzen ba'degu, gerkerak --TElomai-, ta laterak --\*QwOlo, Colo- egiten dute.

Oñarri izkuntzako --\*Gwerwa, \*GUerwa- gerkeraz --DErwa-, ta azkenik, Wau edo Digamma galdu ondoren, -DEra- biurtzen da. Beraz, alde batetik estarriotsa bokal argiak elkartzean, «mii-ortzetako» kontsonantea sortzen da. Bestetik, berriz, --\*GwOra, \*GUora- gerkerazko -BOra- ezpanotsa sortzen da. Lateraz ere -VOrare- egiten du. Gorago aipaturiko legez eratoritzen dire, noski, itz oyek. Oñarrizko izkuntzak asmatu zun --\*Gwmio, \*GUMio- gerkeraz -BAino-. Beraz, bokal illunakin elkaturik «ezpanotsa» nayago du legearen indarrez. Lateraz, berriz, --VENio- egiten du, baña jatorriz \*VAInio- litzake legearen arian sortzen dala, ta azkenik, --vAInio, VENio- sortzen da. Doitxeraz, -Gehen- bere estarriots kontsonantetan sendo geratzen da, --GIing, geGAngen-.

Orrezkeroz, laburki esanda, onela litzake indeuoparren izkuntzetan nagusi dan legea: estarriotsak ezpanotsetan aldatzen dire bokal illunakin elkartzekoan. Eta bokal argiekin elkartzean, berriz, estarriotsak mii-ortzetakoetan aldatzen dire.

Orrenbestez, azter dezagun orain Euzkeraren legea. Ar dezagun, ba; lenbizi, --Begi- itza. Bokal argiekin -G-estariotsak dun arremana onelakoa da beti: -beTIllun, beTEzkel, beTIitsu, beTille, beTIdeki, beTERitsu, beTIirin, beTIizu, beTxIndor, beTErtze, beTEsa, beTEzpal, beTIkara, beTINGuru, beTIreki, beTIzar, beTsEin, araTEgun, araTEpaille, araTxE (arategi-xe).

Olaxe gertatu da -BeTErri- itza ere. Itz orren jatorrizko bi zatiak auek dire --beKO-Erri-. Lenbiziko atala --beKO- da, berariz indeuoparren kontsonante «ezpan-agosapaikoa» edo Kehllaut. Euzkerak, gerkerak bezela, -BeTErri- sortzen du, bokal argiak -Erri- elkartzean. Bestela gertatu da, orratio, -beKErre- itzakin. Bitan ainbanatutako itza --beGI-Erre- izanik, berariz --beTErre- izan bear zukean. Alere, ba da -beKArra, beKArtsu- ere, eta orrezkeroz, -A- bokal illunakin elkartzekoan, berarizko legeari darraikio. Ausaz, semantikaren eragitez sortuko litzake -beKErre-.

Ar dezagun orain estarriotsek bokal illunekin duten arremana Euz-

keraz. Onelakoa da: -beTArgi (begi-argi), beTArro (begi-arro), beTAzain (begi-azain), beTAzpi (begi-azpi), beTAztu (begi-aztu), beTAzal (begi-azal), beTAurre (begi-aurre), beTOno (begi-ondo), beTOker (begi-okar), beTArte (begi-arte), beTURdin (begi-urdin), goTArgi (gogo-argi), arTASTE (argi-aste), araTUzte (aragi-uzte), beTUle (begi-ule), beTxOr, beTAtxo, beTULun, beTAurreko, beTzAin, beTzUlo, beTzUrda, beTUxu, beTOrde, beTOR, beTApal, beTOhil (begi-ohil), beTURusta, begi-kurusta, < bekkurusta, < bekhurusta, < beTURusta). Orrela dalarik aurreko itz ori, onela genuke --bekhuruntze, < beKUruntze < beTURuntze-, -bekhurunde < beTURunde (begi-kurunde < bekhurunde < beTURunde); -bekharantza < beTArantza (begi-karantza < bekkarantza < bekharantza < beTArantza); -bekhoke < beTOke (begi-koke < bekkoke < bekhoke < beTOke).

Dakusgunez, gerkerak eta laterak --linQuo, leiPo; hePOmai, seQUor; KO, PO; KOte, POte, pÓKA, pÓTA edo pÓTE (berezko legez -pÓKA, pÓPA-- bear zun, eta ez -pÓTA-, baña berealako -pÓTE-- sortuak bere legebideari dagokala ipintzen du itza). Gerkeraz berdin --bouPOlos (Homer'ek)- eta -bouKOlos-. Lateraz ere -COlo-.

Beraz, indeuropar izkuntz oyetan --Qwo, PO- legea nagusi dan bitartean, Euzkerak beti estarriotsa mii-ortzetakoan aldatzen du, edo mii-ortzetakoari eusten dio. Beti, nunbait, ez ote? forma auker ere ba diren arren: -beKOsko (begi-osko?); alere, --beTOsko- ere bizi da; -beKOki (begi-oki?), baña -beTOki- ere ba da; -beKOno- (begi-ondo?), baña -beTOno- ere ba da. Euzkerak, beraz, bai bokal argiekin, bai bokal illunekin nayago du estarriotsa mii-ortzetako kontsonantean aldatzea.

Gogorazu, baña, --ondarra-- itza ez ezik, -kondarra-- ere ba dala. Orrezkeraz, -begi-kondo beKOno; begi-ondo beTOno. Berebateko aldaketak dire -ongi-kondo oKOno; ogi-ondo oTOno; ebagi-kondo (ebaki-kondo) ebaKOno, ebagi-ondo (ebaki-ondo) ebaTOno. Indogermanieraz esaniko bokal ori illuna dan ezkeror, beti --oPOno, oBOno, oFOno-- edo -oKOno- egiten du, bañan iñola ere ez -oTOno-- tabar. Ola izatera, ba, ez da zokotik argia eskatzea onenbeste ateratzen ba'da --begi-kosko < beKOsko; begi-osko < beTOsko; begi-koski < beKOski; begi-oskol < beTOskol; begi-koki < beKOki; begi-oki < beTOki.

Beste lege batetik, noski, eratorriak dire itz auker: -beKAin (begi-gain), beKAitz (begi-gaitz), beKAixteri (begi-gaixteri), beKAizgo (begi-gaizgo), beKAizkor (begi-gaizkor), beKAizkin, beKAizki, beKAiztu, oKIIn (ogi-gin), araKAizto (aragi-gaizto), beKOin (begi-goin), beKAra (begi-kara) «lotsagorria» (bekarkara, bekakara). Forma aueta-ko ta goragoko auzia ez da, agi danez, berbera.

Ar dezagun euzkerazko itz au --sagu--. Goragoko -begi- itzak be-

zela, berebateko arauak betetzen ditu beste itzekin elkartzean. Onela -saTURdin (sagu-urdin), saTAbi (sagu-abi). -Sagu-kabi- ba'ledi, berriz, -saKAbi- izanen da. -saTOR- (segu-hor, edo sagu-or). Itz orrek ez du egiten -beKAitz- (begi-gaitz) itzak bezela, -sagu-gor- zanean egin bear zukean bezela. -Sagu-gor- zanean itza, aldatu izan ba'zan, --SaKAr-sortu izanen zan. Orrezkeroz, -Sagu-kor- edo -Sagu-hor- azkenik -Sagu-or- geratu zanean, sortu izan zan -saTOR-. -SaTSu (sagu-su), edo (sagu-tsu); saTItsu (sagu-itsu), saTEro (sagu-ero), saTURde (sagu-urde), saTArte (sagu-arte), saTSuri (sagu-suri?), saTOrdi (sagu-ordi).

Berebateko legea ageri da, noski, beste itz elkartu auetan ere: -ogi-il, otil; ogi-ondo, otondo (bañan ez -okondo-); ogi-horantza, othorantza (ez, baña, okhorantza); ogi-ordu, otordu (ez -okordu-); ogi?orde, otorde (ez -okorde-); ogiorontze, otorontze (ez -okorontze-); ogi-oron, otoron (ez -okoron-); aragi-uzte, aratuzte (ez -arakuzte-); aragi-epaile, aratepaile; aragi-ardi, aratardi (ez -arakardi-); aragi-egun, arategun; aragi-su, aratsu (ez -araksu-); aragi-xe, aratxe, oTAMen (ogi-amen); oTArre (ogi-arre); oTAza (ogi-aza); zaraTAzal (zaragi-azal); goTArgi (gogo-argi); goTAse (gogo-ase); goTUts (gogo-uts); Gaztelerazko -hoga-za- ez ote da euzkal -oTAza-?

Bidenabarrez oar ezazu -aragi-su, aratsu- aldakera. Gerkerazko -allatt-o-- ta -pratt-o- aditzek, etorkizuna adirazteko legez darabilten legea onelakoa da: -allatt-s-o, allaKSo; pratt-s-o, praKSo-. Orrezkeroz, mii-ortzetako ta zintzurrots kontsonanteak lege batek lotzen ditu. Euzkerak ere berebateko legea erakusten du, itzak alderantziz dauden arren: -araG-Su, araTSu--, ots, zintzurrotsa mii-ortzetako kontsonantean aldatzen da. Bañan gerkerak -fulaK-S, fulaKS; arpaG-S, arpaKS; eliK-S, eliKS-- ta laterak ere --reG-S, reKS; duC-S, duKS....- egiten dun bitartean, Euskerak ez du egiten -araG-Su, araKSu-- beste onela baizik -araTSu--. Ez du egiten --ogi-sein, oG-Sein, oKSein-- beste onela baño: --oTSein--. Ausaz, baita -ogi-sare- ere onela -otsare- (otsara).

Oraindaño, beraz, onenbeste degu: -begi- itzak ez du egiten --beb- (azal), bep-azal, laterak eta gerkerak oi duten bezela. Ezta -sagu- itzak ere ez du onela egiten -sab- (abi), sap- (ordi)... laterak eta gerkerak oi duten bezela.

Ezta -ogi- itzak ere -ob, op, (of)-. Ezta -aragi- itzak ere -arab, arap, (araf)-. Ezta -goGARin, goGArtu, goGarte, goGAide, goGAlDi...- ere ez dire aldatu -goBARin, goBArtu, goBAide, goBAlDi...- Bi itz auek, ordea, --eGUerdi < eBERdi; eGUarte < eBArte-- ez dute erakusten --Gw+e, Gw+a, bestelango auek baizik --GU+e, GU+a. Azken auek bi fonema dire, ta ez dire bat bakarra, -Gw- dan bezela.

Azkenik, esan dezagun -begi- itzak ez du beñola sortzen -behi, bei-. Ezta -sagu- itzak ere beñola -sahu, sau--. Ezta --ogi, aragi, zaragi, gogo...- itzek ere -ohi, arahi, zarahi, goho....-

Goazen aurrera, ta ar dezagun -saratsa- itza. Itz ori beste aldaketa auetan murrizten da: -sagats (sagaset), sahots, saats--. Orrezkeroz, ba, -R- euzkal otsak estarriotsen bidetik jotzen du. Ez da, ba, indeuropar izkuntzetan «aokaldiduna» edo «Silbebildend», zera baizik «estarrionsa».

Azter dezagun, baiñan, orain -ur-aran-. Itz ori beste auetan aldatzen da --ug-aran, uh-aran, uaran--. Baita onela ere egiten du -ub-aran-. Beraz, aldaketa ortan lateraren eta gerkeraren arabera ari da, --G- estarriotsa -B- ezpanots biurtzen da-eta. Alere, -uBAran- aldaketak lenbizi --uGAran- du jatorriz, ta orrela sortu da indeuroparren legez. Baiñan ez da zuzenki --ur-aran- itzetik eratorri. Alboko gertakizun bat da --G--aren *b-keta* ori. Ez da gertatzen -sabaset, sabats-. Beti arkitzen ditugu onela itz orren eratorriak --sahaski, saaski-- sahasi, saasti-. Jatorrizko izkia -R- izanik, gertatzen dire estarriotsezko itz --sahats, sahasi...-- oyek. Orrenbeste ez da gertatzen --sagasti-itzakin, jatorrizko izkia -G- danean.

Ikus, berebat, beste itz onen gorabeera --ur-alde, ugalde, uhalde, ualde--. Baita --ubalde-- ere sortzen da, baiñan alboko aldaketa dirudi *b-keta* orrek, lenbizi -ugalde-- sortu dalako jarraitzen du indeuroparren izkuntzen arabera.

Beste bereizgo bat arkitzen da, gañera, gerkeraren eta euzkeraren tartean. Gerketak ezpanotsa -u- bokalaren ostean gertatzen danean, -k-nayago du. Onela -ippoPOlos, aiPOlos- izan arren, --boUPólos-- beste ontan --boUKÓlos-- eraldatzen da. Orrezkeroz, *b-keta k-keta* biurtzen du. Euzkerak, ordea, lenbiziko -uGAran- edo estarriotsa -uBAran- ezpanotsean aldatzen du. Legea, beraz, alderantziz gertatzen da. Ikus, berebat, gertari au: gerkerazko -boûs- laterazko -bos- biurtzen da, baña doitzexeraz -KUh-.

Olaxe aldatzen dire beste itz aunitz ere. Adibidez, --ur-haitz, ur-aitz (ur-haitz), ug-aitz (ug-haitz), uh-aitz (uh-haitz), uhaitz, uaitz--. Ez dirudi jatorriz -ur-gaitz-- danik. Ola izatera, ba, -ur-kaitza-- sortuko litzake, beste auetan bezela, --bekaizgoa, bekaizkor, bekaizmin, bekaixteri, bekaizti, bekaiztu...--. Dirudinez, ba, aitza (haitza)- Euzkeraren oñarri itza litzake.

Berebateko legea arkitzen da --zugaitz- itzari buruz. Jatorrizko itza --zur-aitza (zur-haitza)-- litzake, ta aldaketa auek eskeintzen ditu --zug-aitza (zug-haitza), zuh-haitza, zuh-aitza, zuaitza--. Beste forma auek ere -zugatza, zugatzaga, zugazi-- beren artan iraun dute, --sagaset- bezela, abizenak-edo direlako.

Ez dirudi, esan bezela, --zugaitza, zuhaitza, zuaitza- itza jatorriz --zur-gaitza- danik. Ola izatera, ba, -zurkaitza, zurkaitzatu, zukibel (zur-gibel), zukil (zur-gil) sortuko lirake. Ikus, ba, --arri-gaitza-- ontan

eraldatzen da --arkaitza- arkaizto (arri-gaizto), arkazte (ardi-gazte), arkorotz (ardi-gorotz). Gogora goragoko -argi-aste- beste ontan --ar-taste- aldatzen dala, ta --ardi-antzu- beste ontan -artantzu--.

Itzaren jatorrizko -R- arkitzen ba'da, berezko bidea onela da --zur-irin, zugirin, zuhirin, zuirin--; zur-irindu, zug-irindu, zuh-irindu, zu-irindu-; zur-aritz, zug-aritz, zuh-aritz, zu-aritz--; zur-indu, zug-indu, zuh-indu, zu-indu; zur-il, zug-il, zuh-il, zuil--.

Batzutan bestelako legeak ere naas ditezke itzak elkartzean. Adi-bidez, --zugabe- onela adiraz diteke --zur-age, zug-age, zub-age--. Azken itz au -zuBAge- aurreko -zuGAge- oñarriztatik darator, eta estarriotsen eta ezpanotsen arteko legetik doa, --zuHAge, zuage- egin bearrean. Idurizkoa ta azalekoa da aldaketa, olaxe deitzen bai dio Max Niedermann'ek alako gertariari. Berebat gertatzen da -zuBAtz- itzakin ere, -zuGAtz- du aurremallako etorburua. Bere legez --zuHAtz, zuatz- izan bear zukean, bañan osterantzeko malla ontara ez da iritxi, Itzak bere esangura banakoa du ta berezia: belar metak erditik eusteko dun ardatza da. --zuHAtz, zuatz-, berriz esatean, bestelango esangura adirazten du, gatzain koxkolak idekitzeko edo koxkoldun gaztañak batzeko artaziak dire. Ez da lege baten indarrez gertatu --zuBAge- ta -zuBII-. Azken itz au biko ontan zatitzen da: --zur-bil-, eta orrezkeroz, --zur-gibel- itzetik -zuKIBel- eratorri dan bezela, --zubaltz- beste itz onen --zur-baltz- itzetik sortu dan bezela, alaxe sortu da --zubil--.

Beste adibide auk -Karek, Garek, Harek, Arek; Konek, Gonek; Honek, Onek; Kek, Hek, Ek; Karegatik, Garegatik, Gargatik, HaHHatik, Ahatik (ez bai da -haatik-) euzkal itzen jatorrizko ta egiazko legearen «ariora» darakuste aldaketa. «Idurizko ta itxurazko» aldaketak dire, ta beste lege baten indarrez diardute orrela.

Orrezkeroz, yarduizun auen atzena onela litzakelakoan legoke bat:  
A) Itzaren jatorrizko -G- zintzurrotsa ba'ledi, Euzkerak ez du beñola -H-ean legez aldatzen, ezta galtzen ere. Adibidez, --begi, sagu, ogi, aragi-. Beti egiten du --bet, sat-, ot-, arat, got- (gogo).

B) Baña -R- jatorrizkoa ba'ledi, izki ori --G, H- estarriotsetan aldatzen da berez eta berarizko legez. Batzutan fonetika legez ez, baña semantika legez, edo bestela, --G- estarriotsa -B- ezpanots biurtzen da.

C) Euzkal -R- ez da indeuropar izkuntzetako «ixurbera» kontsonante oyetakoa, Sem ariko izkuntzetako kontsonante «estariotsa» da, -R- (řěš) ere `ālef(´), h(hě), hêt (h), `ayin (´)- estarriotsen sailkoan asmatzen da-eta.